


Aretxabaleta,  
1993ko martxoak 25

# Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABAleta




## Aurten K-2ra begira

• Apirilaren 1ean  
Korrika

• Afizioak:  
Mikel Arroiabe

• Kirolak:  
Zikloturistak



"Umorea nekez saltzen da, baina eskura daitekeena da."

## Umorea, bizitzaren pedagogia

200 urte k.a. judutar fededun batek hauxe zioen: "Etzazu zure anima tristuraz bete, ez eta burutapenek oinazez bete zaitzan; bihotzeko alaitasuna gizakiaren bizia da, bere egunen luzapenak". Garai hartako judutar fededunek dohaitzat zeukaten, jainkoarena noski, bizi luzea eta oparoa. Berdin beste erlijioetan ere. Gaurko egunean, luzapena soilik baino, oparoa izan dakigun baloratzen dugu. Lehia biziz lortu nahi dugun helburua.

Umorea nekez saltzen da, baina eskura daitekeena da, eta askotan, seriotasunaren izenean gutxietsi duena. Topikoa da zenbait erronkei aurre egiteko, umorea behar dela; tipikoa da, gizakiei bakarrik gerta ohi zaiela. Zorionez, berezkoa berau zaigu pentsatzea eta sentitzea. Adimen sentigarriak erakartzen gaitu errealitatera; errealitateak adimen sentigarriz txertatzen gaitu bizian umorez egotea. Umorea, zertarako?, zergatik?. Ba, alde batetik,

inguru desmitifikatzeko, eta, bestetik, inguruari atxekitzeko. Eta hau gizakiari dagokio ezinbestean. Horretarako, jainkotasunak lagundu edo kateatu diezaioke: bizia jasangarri ala jasanezina gerta dakioko. Jainkotasun honek, norberak eta besteak pentsa, esan, egin dugunari parra edo negarra egitera garamatzake: orduan desmitifikatu dugu gure jauntxokeria; eta esan, pentsa, egin duenarekiko atxekitasuna adierazteko. Hau da, nolabaiteko solidaritza, gizaki artean, sor genezakeena: gehiago elkar ezagutuz, elkar eramateko, bat egiteko, parra egiten dutenekin parra eginez, negar egiten dutenekin negar eginez; salatzen dutenekin salatzaile, laguntzen dutenekin laguntzaile. Azken batean etxea eta etxe-koak ezagutuz, elkar biziaz. Esan daiteke, desmitifikazioak, garbitasunarekin zrikusia duela; atxekitasunak, gogokoa izatearekin: errealitate osoari so eginez, berau maitatu.

Jainkotasunak errealtatea bihurtzen du gizakiekin topagune, elkarte, jauntxokeria aldenduz, uxatuz, Jainkoa eta gizakiek, beren artean, giza harremanak sustraituz eta sakonduz.

Kristauok, badugu harreman hauek bideratzen dituen sinismena: harrokeria gutxiesten duena eta gizatasunari atxekiturik dagoena. Gizakia zentzarazten du: pedagogoa dugu Jainko hau. Garizuman, neurrizko biziaz, eskuzabaltasunez eta elkar entzun eraziz desmitifikatzen ditu gehiegikeria, zenkeria eta entzungorkeria: baraua, limosna eta otoitza dira bizitzari atxekiturik bizitzeko umoretsu.

**Mikel Egizabal  
Abade  
laguntzailea**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Ze aldatuko zenuke Herriko Plazan?




**Marisa Miguel**  
( Ume zaintzailea )

Haur txikientzako kotxeak jaisteko eta igoteko dauden eskailerak aldatuko nituzke. Orain oso txarto dago kotxeekin ibiltzeko.



**Mari Mar Arnaiz**  
( Etxekoandrea )

Ondo dago, behar bada erdian iturri bat edo kioskoajarriko nuke. Oso hutsik dago eta.



**Igor Lasaga**  
(Ikaslea)

Ondo dago dagoen moduan, baina ez da futboleko jokatzeko lekurik egokiena. Horretarako beste leku batzuk daude.



**Ibai Bengoa**  
(Ikaslea)

Ez dut uste ondo aprobetzatuta dagoenik, beste zerbait jartzeko toki dago. Gainera, lurra oso labana da.

## KARTAK

### Almeni buruz zenbait argitasun

**Almeneko** irakasle, guraso eta inguruan gabiltzanok harrituta gaude azken urteotan, eta azken hilabeteotan bereziki, Aretxabaletako zenbait pertsonen **Almeni** buruz egindutuzten kritika eta erasoengatik.

"**Ikastetxe pribatu**"tzat jotzen gaituzte. Kontzeptu horren alde juridikoaz gain, denok dakigu ikastetxe pribatuak interes eta ideologia beten edo bestearen zerbitzura egoten direla eta, ondorioz, interes horien ordezkariak izaten direla zuzendarik ere.

**Almen** guraso, irakasle eta laguntzaileen kooperatiba mistoa da, 1.700 bazkide biltzen dituena gutxi gorabehera, eta hauek izaten dira, Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen bitartez, maila guztietan eta bakoitzean ikastetxearen nondik norakoa ezartzen dutenak.

Aretxabaletan bada jenderik, batetik **Almen** - eta **ikastolak** orohar - eta bestetik **Herri Eskola** kontrajartzen saiatzen dena. Txundituta galdetzen dugu: **Almen** ez al da nahikoa Herri-Eskola eskualde honetako herri-ekimenez sortu baldin ba-

zen eta 27 urteotan bazkideen borondateak zuzendu badu etengabe? 1.700 bazkide hauek - berauetako asko Aretxabaletakoak -, ez al dute behar hainbat garantizatzen borondate eta izaera herrikoia? Ikastolak ere - ikastola guztiak, oro har -, herri honetatik jaio eta beronen borondate tinko eta ahaleginez iraua ondoren, ez al da bada Herri-Eskola?

Orduan, zergatik jotzen gaituzte mespresuz "**pribatu**"tzat? kooperatiba garelako bakarrik? Ala marianisten laguntza baliotsua izan dugulako ote, berauek **Almenen** - eta oro har Aretxabaletako herriaren - alde lan handia egin dutelarik? Zoritxarrez, guri ez dagozkigun arrazoiengatik, gaur egun ezin gara berauen laguntzaz baliatu.

Ikastetxe pribatu batzuen ezaugarri bat bereizkuntza edo diskriminazioa izaten da, ideologia edo kostu handia tarteko dela. **Almen**, nahi duten bazkide guztientzako zabalik dagoen ikastetxea da; honen ondorio nabari aniztasun edo pluraltasuna da, eta erabakiak hartzerakoan hemen ez dago beste

ideologiarik bazkide guztien borondate kontsentsuatu baina.

**Almeneko** gurasoek Elkarte egin beharreko ekarpen edo kuotak ezagutzen dituenak (gutxienez 1.000 pta. Haur-Hezkuntzan eta gehienez 2.170 pta. Goi-Batxilergoan nekez esan dezake, seriotasunez, **Almen** ez dagoela askoren eskura eta irispidean. Kuota hauek ez dute aldaketarik izan 1984. urtetik.

Badakigu Aretxabaletan badirela beste hezkuntza-errealitate batzuk ere. Beraueganako begirunez jokatu izan dugu beti eta elkarlanean ere ari izan gara berorien euskalduntze eta hobekuntzan, honetarako geure ikaslegoa lagatuz eta beharrezko laguntza pedagogikoa emanez.

Honexegatik, hain zuzen, **Almenek** ez du urte askotan zehar propagandarik eta kaptazio-lanik egin nahi izan beretzat- eta ikastolarentzat oro har -, honelako ekitzak Aretxabaleta bezalako herri txikietan kaltegarriak direla uste baitu. Hezkuntza-proiektuaren bidez geure zerbitzua ahalik eta ongien eskaintzea izan da gure aukera, gurasoak aske utziz gogokoan duten ikastetxerantz jo

dezaten.


"Euskal Eskola Publikoaren Legea" kalean da dagoeneko eta eztabaidagai gertatzen ari da; guk ere laster erabaki beharko dugu geure jarrera.

**Almenen**, bazkide guztien borondatearen adierazgarri izango da erabaki hori.

Baina ziur gaude ez dugula errraz amore emango Administrazioaren aurrean, eragin kortasun gutxikoa delako eta ez dakigulako zernolako interesak defenditzen dituen ezta alde jakaituko duen gero ere.

Ziur esan dezakegu, erabaki hori hartzeko momentuan, kalitatezko Hezkuntza-Proiektua garantizatze bidea aukeratuko dugula, eta hezkuntza-eskaintza autonomo eta baldintzatu gabearen aldekoa, herri honen borondate eta beharrak kontuan izanik beti ere.

**ALMENeko zenbait irakasle eta guraso**



## Biztanlegoaren igoera

Aurten aurreko urtean baino 14 biztanle gehiago ditu Atxabaltak. Hori da azkeneko urteko padroiak dioena. Inguruko herrietan, barriz, aurkako joera ei dago.

Atxabaltak guztira, 6.190 biztanle ditu, horietatik 3.152 gizon-nezkoak eta 3.024 emakumezkoak.

Biztanlegoaren igoera honako arrazoi hauengatik izan da: jaiotzak 57, heriotzak 41, egoitza aldaketak: beste herrietatik 73, beste herrietara 91 eta atzerritik 2 eta ahaztutakoena 15.

Beraz, berezko hazkundea positiboa da. Jaiotzen kopurua eta kanpotik herrira bizitzera etorri direnen kopurua altuagoa da, heriotzarena edp herritik kanpora joan direnena baino.

Arrazioak hauek izan daitezke: batetik jaiotze tasa handia dagoela Atxabaltan eta bestetik, etxebizitzak egin direla eta inguruko jendea hurreatu dela.

Goiko grafikoan ikusten denez, 1982. urtetik aurtengo urterarte, aldaketa haundiak izan dira. Igoera batez ere, 87. urtetik gaur artekoa da.

Hona hemen urte bakoitzeko biztanle kopuruak:

82an 6.044, 83an 5.982, 84an 6.054, 85an 6.039, 86an 6.005, 87an 5.999, 88an 6.041, 89an 6.049, 90an 6.112, 91an 6.147, 92an 6.176 eta 93an 6.190.

Ikusten denez beste herri batzuetan behera egin den bitartean Atxabaltan goraka goaz.



## Bosniarren berriak

Martxoaren 16an bosniarren aldeko komiteak, udaletxeko ganbaran abendutik orain arte izandako gorabeheren berri eman zuen. Bertan bosniar bi ere izan ziren. Komitea oso pozik dago jasotzen duten laguntzarekin eta bosniarren jarrerarekin.

Alde batetik, egoera ekonomikoa argitu zuten, eskerrak emanez laguntza ematen duten, pertsona, Udal ( Leintz-Gatzaga, Atxabalta eta Eskoriatza ), Elkarte, enpresei eta abar. Zebakitan hau da daukaten egoera:

**S a r r e r a k :**  
7.079.071pta

**Gastuak:** 1. 679.071pta: Elektrizitatea 75.000, Telefonoa 151.000, berogailuak 450.000 eta beste gastu batzuk ( segurua, bi-daiak...) 1.003.071.

Orain daukaten saldoa 5.400.000 pezetakoa da.


Bestalde, bosniarren eguneroko arazoei buruz jardun zuten. Eurok arduratzen dira etxearekin eta ortuko lehenengo kipulak ere jan dituzte.

Gazteek eta helduek erderazko klaseak hartzen dituzte.

Gainera, lau haur gazteenak Luis Ezeizan hasi dira, beste bat Almenen eta beste lau Arrasateko Bastida akademiaren.

Bosniarrek esan zuten ez ondo moldatu dira Eskoriatzan, eskerrak besterik ez dute emateko.

Dena den, egoera honek noiz arte jarraituko duen ez dakite eta konponbidea gatxa iruditzen zaie. Euren senideekin harremanetan jarraitzen dute.



## Euskara erabilpenaren neurketa

Udaleko Euskara Batzordeko memorian 1992. urtean egindako ekintza desberdinak azaltzen dira.

Horietako bat 1992. urtean egindako euskera erabilpenaren kale neurketa da. Horren arabera Atxabaltako % 46,28ak erabiltzen du euskera.

Datu horiek edadeka aztertu ezkeru, euskara gutxien erabiltzen dutenak helduak dira eta gehien, umek.

Gainera, azkenengo hiru urteko kale neurketetako datuak gonbaratu ezkeru, eta giro desberdinak kontutab hartuta, ondorio hauek atera daitezke:

- 15 - 24 urte bitartean euskaraz berba egiteko tendentzia % 8an igo da.
- 65 urtetik gorakoek % 10 gutxiago erabiltzen dute..

Merkadiloko giroa erdalduna ei da. Futbol giroko tendentzia euskaldu-

neruntz doa. Gabeko giroa, barriz, erdalduna da, 1/3 batek euskeraz dihardu eta 2/3 ak gaztelera. Paseoetako oso erdalduna da, laurdenak besterik ez du euskeraz egiten. Plazako giroan, barriz, mantendu egiten da; talde bi daude, gazte eta haurrek gehiago egiten dute euskaraz eta nagusiagoek erdaraz. Azkenik, zapatu goizetako giroa iaz baino euskaldunagoa da, %11 euskaldunagoa.

Bestalde, memoria horretan erabilpen gunearen programa aitatzen da, ikasturte honetan martxan jarri dena.

Programa horren helburua euskaldun barriak euskal munduan sozializatzea da. Horretarako prozesua samurragoa izan dadin, herriko taldeekin batera lan egingo da.

Talde horiek euskaraz jardungo dute, asmoa euskaldun barriak taldetan sartzea da eta hortik aurrera haiek euskal giroan murgilduaz joan daitezzen. Plangintza horri 1992. urtean eman zitzaion hasiera eta Udal Euskaltegiko zenbait ikasle hasi dira dagoeneko.


• 91-92ko Gazte txartelaren baliotasun-epea apirilaren 30era arte luzatu da. Maiatzetik aurrera kanpaina bearrria hastea espero da.

• Juan Arregiri omenaldia prestatu zuen batzordeak 500.000 pta jaso ditu. Diru horren banaketa hau da: 50.000 egun horretako gastuetarako. Beste 450.000ak: 100.000 abesbatzarendako, larogeina mila pezeta U.D.A, Ikastola, Loramendi dantza taldea eta Basotxorendako eta 30.000 parrokiarendako.


• Odol emateak izango dira Atxabaltako Osasun Zentruan apirilaren 5ean, 4.30etatik 8ak arte.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



**ZENBAKI**  
Aholkularitza

Basabe industrialdea  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Biteri etorb. 15  
Arrasate  
Tfnoa: 77 12 39



## II Irakur maratokia

Martxoak 30ean, Kurtzebarri Eskolako aretoan II irakur maratokia izango da. Ekintza hau, martxoak 29tik apirilak 2ra antolatu duten aste kulturaren barruan kokatzen da.

Irakurtzeko zaletasuna bultzatu gura dute; gu, irakurleok, egun berezi horretan bertako partaide izan eta denbora libre beteteko aukera izan dezagun.

Maratokia goizeko 9etatik arratsaldeko 7ak arte izango da. Ordu horietan beti norbait irakurtzen ibiliko da. Horretarako txandak antolatuko dira. Kurtzebarri eskolako ikasle, irakasle, guraso eta edozein herri-tarrek parte hartu dezake.

Horrela, iazko maratopian moduan, goizean eskolako ikasleak izango dira. Arratsaldez edozeinek hartu dezake parte.

Bestalde, Udaleko Kultura Batzordeak martxoak 29 eta 30an ipuin kontaketa saioak antolatu ditu. Martxoak 29an Pello Añorga eta bere taldea izango dira, 5. eta 8. mailako ikasleei zuzendutako saioaz. Martxoak 30ean, Agurtzane Intxaurreagak 5 urteko haurrentzako saio berezia eskainiko du.

Irakur maratopian parte hartu gura dutenei Kurtzebarri Eskolako ordua jakinaraztea eskatzen zaie.

## Badator Korrika

Apirilak 1ean goizeko 11.30etan Atxabaltatik Korrika pasatuko da. Aurretik beste hainbat ekintza antolatuko dira.

Martxoak 27an zapatua arratsaldeko 4retatik aurrera jolas bereziak izango dira haurrentzako Korrikarekin lotuta.

Bestalde, martxoak 28an domekan goizeko 12etatik ordu 2ak arte marrazki, bertso eta lema lehiaketak izango dira. Gainera herensuge erraldoia ere egongo da, plazatik urtengo du eta

Mitarte Kaleraino joango da. Egun honetan Korrikaren aldeko kuestazioa egingo da.

Atxabaltako talde desberdinak Korrikari laguntzen diote kilometroak erositik. Honela Udaletxeko Euskera Batzordeak, Emakume taldeak, H.Bk, Eroskik, Gestorak eta herriko Elkarte desberdinek kilometro bana erosi dute.

Beinke eta Aretxagazeta, Murruxixo eta Zairaia eta Euskaltegi eta Almenen artean erdibana kilometroa erosi dute.



**Martxoaren 9an udaletxeko Pleno Aretoan Manolo Huertas izan zen Euskal Eskola Publikoaren legeari buruz hainbat zehetasun ematen.**

**MZ MASAILARIAK**

**MASAIK ZARAIA**

MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1. A  
Tfnoa: 79 71 55

**ANGELINES**

Autoserbitzua




Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42

**LASA AGUILERA**

**AHOLKULARITZA**

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA



**LENIZ**

LIBURUDENDA

**HERRIKO  
PLAZA**

TFNOA:  
791615



## Fagor-Ederlan haunditu

Fagor- Ederlan S. Copp. Ltdak 31 sektorean kokatuta duen eraikuntza handituko du.

Honela, Udalak bai-mena eman die lanak hasteko.

Aurkeztu duten proiektuan, gaur egun-

go eraikuntzari, ekialdetik erantsita, 48 m. x 32 m. tako eta 9 m. tako altuera duen biltegi bat egiteko asmoa dute.

Eraikuntza honen kanpoko itxura eta gaur egun dagoenarena berdinak izango dira.

## Lurraldearen ordenaziorako oinarriak

Momentu honetan, Atxabaltako Udalean eta Deba Garaiko Mankomunitatean Euskadi Komunitate Autonomoko lurraldearen ordenaziorako oinarriak adierazten dituen agiria aztertzen ari dira.

Agiri honetan populaketa, hiri eta lurraldeen arteko oreka berria proposatzen da. Oreka bateratua eta erakargarria lortu gura dute Komunitate Autonomoko biztanlego eta gure ingurunearen artean.

## DEGABEL-en batzarra

Deba Garaiko abeltzainen elkarteak martxoak 28an, eguerdiko 12etan Gatzagako udaltxean ohizko batzarra izango da. Bertan 1992. urtearen errepasoa

egingo da, eta 1993rako aurreikuspenak egingo dira. Elkarteak 700 bat bazkide ditu.

Ganaduak dituzten baserritar guztiak gonbidatuta daude bertara.

## Bolinaga eta Arkarazoko bideen konpoketa

Bolinaga eta Arkarazoko bideen konpoketaren proiektuan, Bolinaga auzora doan bidearen bi zatiren konpoketa aurre ikusten da horma batzuen bidez. Horma hauekin, momentu honetan oso ondatuta dauden bidearen bi zati bardindu gura dira.

Bide bien konpoketaren lehenengo graba artifiziala erabiliko da eta bukatzeko beste kapa bat botako da gainera.

Bolinaga eta Arkarazora doazen bideak 850 m. eta 290 m. dituzte eta zabalera 4 m. eta 4'5 m. koak dira.

Gainera, bi bidetako bazterretan ormigoizko arekak egingo dira, behar den lekuetan ormigoizko hodiak jarriz, hodiak eta arketak egoera txarrean daudenak konponduz.

Proiektu honen aurrekontua 33 miloikoa da.

## Ekonomiari buruzko mahaingurua

Apirilak 1ean, arratsaldeko 7etan, udaltxeko ganbaran Beinke Kultur Elkarteak antolatutako mahainguru interesgarria izango da.

Mahainguru horretan bailarako egoera sozio - ekonomikoa eta langabezia aztertuko dira.

Gaur egun gai horrek inportantzia handia du, gure bailaran bizi dugun egoera nahiko kezagarria da eta.

Hori dela eta mahaingurura zer esana daukaten atxabaltarrak ekartzen saiatu da Beinke Elkarteak.

Mahainguruan honako hauek parte har-

tuko dute:

-Juan Mari Otxoa (ekonomilaria, boltsan aditua).


-Jesus Mari Herrasti (MCC korporazioko kongresuko lehendakaria).

-Antxon Mendizabal (E.H.Uko ekonomia irakaslea).

Moderatzailea ere atxabaltar bat izango da, Anjel Mari Errasti (E.H.Uko ekonomia irakaslea).

Denok gonbidatuta zaudete mahainguru horretara. Benetan aukera ona izango da bailaran bizi dugun egoerari buruz gehiago jakiteko.

Azkenengo urteotan, irailean, Himalaya aldetik ailegetan ziren berrien zain egon gara. Aurten, barriz, uztail bukaeran edo, bost atxabaltar eta iruñear bat K2 mendia tontor inguruan izango dira. Inurrategi anaiek Everesteko gailurra eginda gero, beste hiru atxabaltarrekin, Jon Ander Loidi (Bili), Fernando Uribesalgo eta Joseba Urkiarekin, joango dira. Eurekin Jabier Zuñiga joango da.



Jarraituko duten bidea.

## Abenturaren bila, K2ra

Maiatzean bost atxabaltar horiek osatzen duten espedizioak Txina aldera joateko asmoa du. Eurekin, Jabier Zuñiga joango da. K2 mendia iparraldetik igoteko eta Felixek dionez, "gura genuke bertako ertz finaren azken zatiko bidea zabaltzea".

K2 edo Qogori (8.611 m.) mendia, Himalaya mendikatean, Txina eta Pakistanen artean kokatuta dago. Munduko 2. mendirik altuena da. "Oso mendi polita da, 8 milako politena. Bideak 1.600 mtako arista fin bat du. Bide teknikoak, fina eta segurua da. Ez dago elur jausi arriskurik".

Azkenengo urteotan egin diren espedizioek Pakistan aldetik igo dute,

baina Txinako aldea oso ezezaguna da. Euskal Herritik egin diren espedizio guztiak Pakistanetik joan dira. Katalanak orain dela urte bi errekonozimendu espedizioa egin zuten eta igaz hurbilketa alde horretatik.

Gutxi izan dira alde horretatik igo dutenak. 1982an espedizio japoniar haundi batek igo zuten, 1983an italiarrek eta azkenik, 1990an amerikarrez eta australiarrez osatutako talde batek.

Txina aldean 4 hilabetez egoteko asmoa dute. Maiatz bukaeran hemendik urten, uztail bukaeran gailurrera igo eta abuztu bukaeran bueltatzeko asmoarekin.

"Inguru hartan, ne

**"Gura genuke bertako ertz finaren azken zatiko bidea zabaltzea"**

gua oso luzea da, abuztu hasten da eta udaberrirarte luzatzen da. Maiatzetik abuztu bukaera arte bakarrik joan daiteke. Neguko espediziorik ez da inoiz egin, ezta Pakistanetik ere".

"Nepalen, barriz, tenporada bidaude: bata, martxotik maiatzera arte eta bestea, monzoiak eta gero, abendurarte. Horregatik joan izan gara uztail bukaeran Nepal aldera".

Hasiera batean, iraupen luzeko espedizioa dela pentsatu arren, euren ustez ez da hainbesteko. "Nepal ondo ezagutzen dugu eta bizkor mugitzen gara, baina Txina ezezaguna da. Hurbilketa oso urrun geratzen da. Ez da hainbeste denbora, lehenengo espedizioek mendian lau hilabete egiten zuten eta ia bost hilabete behar zituzten".

Euren problema haundienetarikoa, mendira hurbilketa egitea da.

"Nepalen sherpak, Pakistanen baltisak daude eta han ez dago ezer. Inguruan desertua dago eta ez da inor bizi kilometro askotan. Aukera bakarra gameluz sartzea da. Horrekin, leku bateraino heltzen dira, baina guri karga guztiarekin heltzea interesetan zaigun lekuraino ez".

Abentura itxura ere badu honek. "Bailara horretan tenperaturak igo eta elur asko urketan bada ibaiko ura igo egiten da. Gameluen jabeak mendi



ingurura bueltatu arte 15 egun edo hilabete pasatu daiteke. Ezin dira kalkulo zehatzak egin".

Aurtengo Atxabaltako espedizioak honako partaide hauek izango ditu: Felix eta Alberto Iñurrategi, 25 eta 24 urtekoak; Jon Ander Loidi (Bili), 24 urtekoa; Fernando Uribesalgo, 32 urtekoa, Joseba Urkia, 25 urtekoa eta Jabier Zuñiga iruñearra. Atxabaltarrak mendizale giroan ezagunak dira, lehenengoko biak Himalaya aldean ibiliak dira eta beste hirurak, Europako eta Hego Ameriketako hainbat gailurretan. Jabier Zuñiga, euren preparadore fisikoa da.

Bestalde, Felixi zeintzuk igoko duten gailurrera galdetzerakoan, hauxe erantzun zigan: "Denok igoko dugu. Zenbaitek, pentsatu dezake besteak tiraketako hartu ditugula, baina ez da hori. Jabier Zuñigarekin plangintza konkretua egingen gabilta eta horrek talde lana eskatzen du. Bakoitzak ahal duena emango du".

Ez da izango espedizio arina, ezta astuna ere. Felixek dioenez: "Gure lan metodoak arintasunean daude oinarrituta. Orain arte, egin ditugun espedizioetan gure funtzionetako modua positiboa dela ikusi dugu eta hori seiko talde batera pasatu gura dugu. Igoera oxigeno artifizial barik izango da.

Gure plangintza flexibla da. Ez du izan behar estruktura bakarreko



Hau da espedizioaren anagrama.

planteamentua eta edozein egoeratik urteten jakin behar da".

Euren asmoa, K2 mendia ingurura ailegatuta, beheko kanpamentua 3.850 mtan jartea da. Beheko kanpamentu aurreratu 5.000 mtan, tartean 25 kmtako glaziarra dago. Lehenengo kanpamentutik bigarreneira salto handia dago, 5.800 mtatik 7.000 mtara igoko dute eta. Gero hirugarrena 7.600 mtan eta laugarrena 8.000 mtan. Azkeneko kanpamentua gatxena izan daiteke, ezin da ondo lo egin.

Tontorrera heltzeko bide barria zabaldu gura dute, ertzetik tontorreraino jarraituz. (Irudian ikusi daitekeenez).

Bestela, orain arte aurreko espedizioek igo duten bideetik joango dira. Bide horrek goiko "neberoa" zeharkatzen du. Baina euren ametsik haundiena,

**"Denok igoko dugu. Gure plangintzak talde lana eskatzen du."**


bide hori egin duten lehenak izatea da.

Orain arte inork ez du bide horretatik jarraitu, bide barri hori lortzea aurrten egin gura duten abentura handi horren helburuetako bat litzateke.

"Aurrekontua, 6 lagun goazenez, altua da: 17.800.000 pezeta ingurukoa. Bidaia egin, materiala, janaria, argazki materiala eta botikina erosten 6.800.000 pta edo gastatuko ditugu. Txinan eta Pakistanen, garraioa, interpretea, gameluak, ... eta beste hainbat gauzatan 11.000.000 pta. Hala ere, urtero moduan kamisetak eta frakak datorren astean edo kalean izango dira".

Berri zehatzagoak datorren eguaztenean egingo duten aurkezpenean izango dira.

Atxabaltan ere bago margo taldea. Bertan gazte batzuk dabilta egunero afizio hori lantzen. Horreitako bat Mikel Arroiabe dugu, 20 urteko atxabaltar honen pasioa pintura da. Mikel gurekin izan dugu afizio hau hobeto ezagutzeko.



## Mikel Arroiabe artista gaztea

**• Noiztik daukazu afizio hau?**

• Betidanik. Txikitatik jendeak nahiko ondo margotzen nuela esaten zidan eta pixkanaka - pixkanaka lantzen hasi nintzen orain arte.

**• Afizio hau ezagutzeko denbora luzea behar da?**

• Bai. Hasieran horrelña iruditzen ez bazitzaidan ere afizio guztiak bezala denbora eta praktika handia eskatzen dute.

**• Nor izan da zure**

**maixua?**

• Nire lehenengo irakaslea Zarauzko " Iñigo Ormazabal " izan zen, nahiz eta gero beste batzuk ere izan ditudan. Baina ni ez naiz teoria eskolen aldekoa, bakoitzak bere estilo propioa dauka eta.

**• Gatxa da?**

• Nire ustez ez, gus-tora egiten den edozein gauza, gehienetan samurra izaten da eta. Baina gustetan ez bazaitzu....

**• Zenbat denbora**

**dedikatzen diozu afizio honi?**

• Beharko nukeena baino gutxiago. Kuadro bat behar den moduan margotzeko denbora asko behar da, eta nik orain ez daukat denbora hori ikasten nabilelako. Marraztu, barriz, sarritan egiten dut, ia egunero.

**• Noiz disfrutatzen duzu gehien?**

• Udako konkurtsoetan. Horietan, estudioan gertatzen ez den moduan, sekulako giro ederra egoten da, eta gaine-

ra Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko aukera izaten dugu.

**• Zeintzuk dira egin dituzun kuadrorik onenak?**

• Nire ustez, orain dela urte bi margotutako bi: " Orioko kalea " eta " Sareak josten " .

**• Egin duzu inoiz esposiziorik?**

• Bai. Atxabaltako Artanon egin nuen bat; eta orain Elorrioko Herri tabernan zenbait kuadro erakusten nabil. Horietan paisaje ugari ikusi daitezke, Gipuzkoako zenbait herritakoak eta. Hauetaz gain bodegoi pare bat eta beste zenbait gauza ere badaude.

**• Zein da egin duzun azkenengo lana?**

• Urkulurako bidearen hasieran dagoen horma haundi batean, Atxabaltako pintura taldearekin batera egin dut neure azkenengo lana; joan zen astebukaeran.

**• Ze lan mota egiten duzu?**

• Margotzeaz gain kamisetak margotu eta karikaturak, kartelak eta erretratuak ere egiten ditut.

**E. Vazquez, R. Velasco**

**DORLETA  
TABERNA**

Loramendi Kalea  
☎ 7994 15

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa : 79 17 53  
ARETXABALETA




**GARAGE NORTE, S.L**

**OPEL AGENTZIA OFIZIALA**

Basabe pasealekua - A-13 - Tfnoa: 79 62 65

*Bizikleta modan dagoela ez dago dudarik. Atxabaltan ere badago Zikooturista taldea domekero urteten duena. Talde hori 1984ean sortu zen. Sortu zutenean hauek zeuden direktiban: Roldan, Jose María García, Cabero eta Arbonies. Taldea hobeto ezagutzeko Jose Ramón Vilchez eta Jesus Mari Errasti "Sardan" izan ditugu gurekin.*



## Domekero pedalei eragiten

• **Zer da zikloturismoa?**

• Bizikletan taldean ibiltzea kirola eginez eta lekuak ikusiz. Ez da konpetizloa, nahiz eta gure artean noizbait nolabaiteko apostuak egin. Gainera, giro ona izaten da gure artean. Hori da gure klubeko ezaugarria.

• **Zenbat bazkide ditu klubak?**

• Aurten 72k egin dute karneta, horreitatik bat bakarra da emakumea. Arrasateko 10 bazkide ere baditugu.

• **Noiz hasten da denboraldia?**

• Martxotik irailera bitartean izaten dira urteerak, abuztuan ezik. Guk antolatu ditugun urteerez gain, Gipuzkoa mailan edo Euskal Federazioak antolatzen dituen frogetan ere hartzen dugu parte.

Gainera azkeneko bi urtetan irailean Dorleta - Dorleta klasika antolatu dugu.

• **Ze ezaugarri dituzte urteerek?**

• Aurtengo denboraldian batz bestea 80 km egingo dira urteera bakoitzean. Guztira 2.173 km. Hasieran urteera hauek lauak izaten dira eta motzak, gero zailtasuna haundiagotuz doa.

• **Non egiten dituzue ibilaldiak?**

• Gipuzkoa Araba eta Bizkaitik. Gero, iaz, Frantzia aldera joan ginen eta Tourmalet ere igo genuen. Aurten osterara urteera hau egiteko asmoa dago.

• **Klubeko bazkide guztiek hartzen dute parte?**

• Hasieran bai, gero jaitziaz joaten da. Bestalde, urteera gehienetan 4 huts onartzen dira eta huts egi-

ten ez dutenendako saria izaten da denboraldi bukaeran. Iaz 15ek lortu zuten sari hori.

• **Prestakuntza berezia behar da?**

• Egokiena astean zehar zerbait egitea da, bestela domekan sufritu egiten da. Normalean, neguan ere ez da bizikleta uzten mendikoarekin ibiltzen gara.

• **Arriskutsua da?**

• Bai, orain dela urte bi gure klubeko bazkide bat hil zen. Halakoak izaten direnean bizikleta uztea ere pentsatzen duzu.

Errua alde biena da. Batetik gu bakarka ondo joaten gara, baina taldean konfidantza hartzen dugu eta ez da berdin. Bestalde, kotxeko gidariek ez daude sentsibiizatuta. Gero errepide motak ere kontutan hartu behar dira.

☆ Nesken futbol taldeak bukatu du liga eta azken geratu dira. Orain kopan hasi eta lehenengo postuan daude. Ea horrela jarraitzen duten bukaerarte.

☆ Dorletako Ama txirindulari eskolakoek emaitza hauek lortu zituzten joan den asteburuan: 1. urteko kadeteetan, Jose Sedanok, Eibarren 4. postua lortu zuen. Mikel Roldan azken momenturarte ihes eginda egon zen. 2. urteko kadeteetan Zarautzen izandako l a s t e r k e t a n emaitza onak lortu zituzten, denek froga amaituz. Jubenilek, barriz, ez zuten Azeptian suerterik izan.



## Otaloratarren kapela ( III )

Aozaratzako elizaren Otaloratarren kapilak, sortzaileen erlijiotasuna ezezik, XVI. mendean indarrean zegoen pentsaera ere isladatzen duela esan daiteke. Pentsaera horrek, " Humanismoa "-k pertsonaren balore indibidualak azpimarratzen zituena. Balore horiek (nortasuna, sendotasuna), gizabanakoaren " birtutea " moldatzen zuten, zeina faman edo ospan gauzatzen bait zuten.

Ildo honetatik jarraituz, Sancho Lopez de Otalorak " birtute " handiko pertsona izatea helburutzat zuela esan genezake. Valladolid-en zegoela, Rodrigo Mer-

cado de Zuazola, apezpiku oñatiarra eta humanista famatua ezagutzeko aukera izan zuen Sanchok. Oñatiar famatu horrek, " birtute " handiko pertsona bera ere, testamendua egiterakoan, kontutan izan zuen otaloratarra, eta Oñatin eraikitzen ari zen Unibertsitatearen araudia idazteko eskatu zion. Beraz, " humanismo " zirkulu horren barnean kokatu beharko dugu Sancho.

Horrela, Sancho Lopez de Otalora ere, fama horren bila aritu zen bizitza guztian. Honen eredu ezin hobea, 1558. urtean Valladolid-en idatzitako testamendua dugu; idatziaren sarreran,

heriotzaren etorrera askotan ustegabea dela eta, norberaren etxea ondo antolatuta izatea zein den inportantea azpimarratuko du Sanchok ( Isaias profetaren eta Jesusen hitzak erabiliz ); gero, mundu honetan lortutakoak, metatutakoak, salbaziorako bidean benetako eragina duela pentsatuz, eta Jaungoikoaren pietatea sortarazteko guran edo, aginduak zehaztuko ditu: zenbait meza ( asterobost meza arrunt eta beste hamar meza bereziak, abadeen jatekoa eta limosna kontutan harturik ); Aozaratzako behartsuentzako limosna; kaperauentzako ordaina ( XVI. mendean ze-

har inflazioa ahaztu baring, kaperauen ordainak, prezioek izan zezaketen igoera izango duela eskatuko du Sanchok ), 15.680 maraiak ( txanpon mota bat ), ardoa, argizaria eta jantziak ordaintzeko, zilarrezko ardontziak, kaliza, zilarrezko erretilu bat eta bi argitoki.

Agindu hauen artean batek gaur eguneraino iraun du: Hildakoen argiak. Meza garaian hildakoen argiak piztuta egon behar zuten; defuntuak, familiako partaide baitziren. Ohitura hau, jende askorentzat ezaguna da; oraintsu arte gorde baita eliza gehienetan, eta Aozaratzako Otaloratarren kapilan, agindu hau Otaloratarren maizterrak zirenez, Otalazelaikoei zegokien. Eta han jartzen zuten, paretan dagoen kutxa/zulo bitxi batetik aterata, aldare gainean kandela bi piztuta, eta hilobiaren gainean, harlosaren gainean, zapi txuria eta argizaiola, beraiek, bertako aulki batean eserita meza entzun bitartean.

Modernidadeak, bizien eta hilen arteko argia itzali du, kandela itzungi egin dugu. Dena den ez al du gaurkotanunik atxabaltar ospetsu haren aspaldi jaurtitako galdera gordinak?

Eta abia bai intzan laño ta eurite...

beste alde ortan, bai al duk aterpe....?

**A. Antxia Leturia**  
**I. Urreta**

# Korrika takarraran



J.J. Aretxaga

Takarraran pasatuko da Korrika Aretxabaletatik apirileko lehenengoan. Teorian hiru kilometro badira ere bederatzu saldu dira gure herrian (herriari hiru buelta emateko moduan). Aurten lehenengo aldiz Udalak kilometro bat erosi du. Nobedade bezala, herriko bi mendi taldeek, Murruxiko eta Zaraiak, erdibana erosi dute kilometro bat. Ondo. Beste bi ezkontza daude kilometroak erostekoan: Aretxagazeta-Beinke eta Almen-Euskaltegia. Gestorak, HB-k eta emakume taldeak, Eroskik eta herriko soziedadeek bakarka. Testigua zeintzuk eroango duten sekretua ei da. Lortutakoarekin pozik egon daitezke Korrika batzordean ibili diren **Karmele Igartua** eta konpañia. Ea jendea animatzen den takarraran egitera.

Arrasatekoek askotan nahasten gaituzte eurekin. Ahaztu egiten zaie non bukatzen den euren herria. Orain dela bi asteko Arrasate Press aldizkarian zera agertzen zen, **Mariela Barquero** arrasatearrak Euskadi mailako batxilergo saria irabazi duela. Pasetan dena da Mariela atxabaltarra dela. Aitortzen dut nik ere ez nuela ezagutzen. Benetako arrasatear bat ezagutzeko aukera izan genuen orain dela bi domeka. HIES gaitza dela eta telebistan ikusi izan dugun **Jon Salaberri** Aretxabaletan izan zen, domeka eguerdian preserbatiboak banaketan. Nik dakidanez, gure herrian ez da sekula jenero hori debalde banatu.

Pintada bat artea izan liteke. Mezua eta estetika lotzen ditu. Hori egin gura izan dute Hirugarren Mundu Taldeak eta Margo Lagunak kolektiboak. "Gu ere zordun gara" lemapean pintada bat egin dute Azbe ostean. **Pauxi Bengoa** eta **Mikel Arroiabe** izan ziren artistak. **Mireia Uribetxebarria** eta **Unai Loidi** lagunketan ibili ziren andamioekin.

KOMIKIA



## 27 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman : **Juego de patriotas** filmea.

## 28 DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **Orixol**.

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Matu-rana - Garaio parkea - Ozaeta - Aretxabaleta**.

- Zaraia zineman

arratsaldeko 4.30etan **Blanca Nieves y los 7 enanitos** filmea eta 7retan **juego de patriotas**.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Malkorra**.

- Eskoriatzan **trkitilari eguna** ospatuko da.

## 29 ASTELEHENA

- Ipuin kontaketa Kurtzebarri eskolan .

## 30 MARTIZENA

- II. irakur maratoia.

- Ipuin kontaketak Kurtzebarri eskolan.

## 1 EGUENA

- **Korrika** helduko da goizeko 11.30etan.

- Udaletxeko ganbaran bailarako egoera ekonomikoari buruz mahai ingurua. Arratsaldeko 7retan.

## 3 ZAPATUA

- Gaueko 10etan **Soldado universal** filmea Zaraia zineman.

## 4 DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **Ibi-laldi neurtua**.

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Estibaliz - Aretxabaleta**. ( 85 km ).

- Arratsaldeko 4.30etan **El robo de la joya** eta 7retan **Soldado universal** filmeak Zaraia zineman.

# ARETXAZOKA

### Lana

- Neska bat gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 ( Maika ).

- Zure etxetik lan eginez dirua irabazi gura baduzu, bidali sobre bat helbide honetara: 161 postakutxa.

### Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- Larunbat goizetan ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

### Salerosketak

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**

# PUBLIZITATEA

**SEAT**



**GARAJE  
OSKAR**

Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIK

**BASABE  
JATETXEA**

Menu eta afariak  
industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tnoa: 77 07 94  
79 91 84


**ITURGINTZA**



Tfnoak: 79 07 34  
79 31 87

**LEIBAR**

ARRAINDEGIA



Mitarte kalea, 1 - Tfnoa. 77 13 79  
ARETXABALETA



Mitarte 21, behea  
Tfnoa. 79 79 79  
ARETXABALETA



**IZOTZ  
TABERNA**

MITARTE KALEA  
☎ 79 73 65

**Zatoz ezagutzera  
ZUHAITZ  
jatetxea!**



Tfnoa: 71 41 21

**GATZAGAN**



INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S. A  
Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**IMANOL ARRAZOLA  
KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55



Bere Bezeroen zerbitzura  
Mitarte, 16  
☎ 79 01 72

**Mobiliario  
ARENZA**

ALTZARIK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa.: 79 08 07 ARETXABALETA

**LASA-AGUILERA**

**Aholkularitza**

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

ARETXABALETA  
ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**OSKAR  
HARAGITEGIA**

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69  
ARETXABALETA

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66



Libretan.




Superlibretan.

(\*)

- (\*) Zure gaur eguneko libreta eroso, sinplea eta argia da. Baina, nolakoak dira zure interesak...? Superlibreta, ordea, eroso, sinplea eta argia da. Eta bere interes-mota bikaina da. %7raino U.T.B. Aurreneko 100.000 ptak. %0,10ean. Hori baino argiagorik! Gastu eta komisorik gabe. Besterik gabe. Ez galdu diru gehiago zure gaur eguneko libretarekin. Zatoz Superlibretaren bila! Jadanik 100.000 familatik gora egin dute aldaketa!

Eta lehen 20.000 irekierentzat lauskgailu  
Elektriko bat oparitzat.  
Informa zaitez 900 555 900 zenbakian  
astelehenetik ostirala bitartean, 8etatik 17etara



Eguneroko gutxieneko saltoa  
100.000 pta.tik aurrera izanik,  
lehen 100.000 ptak. %10ean.  
U.T.B.ko adibideak:  
250.000 pta.rako %4,33.  
500.000 pta.rako %5,74.  
1.000.000 de pta.rako %6,45.  
5.000.000 de pta.rako %7,01.



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**